

- 1.- Hiri Ondasun Higiezin gaineko Zerga.
- 2.- Landa Ondasun Higiezin gaineko Zerga.

## I.- Ordaintzeko epea

A.- Borondatezko epea: 2008ko urriaren 1etik 2008ko azaroaren 30era.

B.- Betearazte aldia (% 5eko errekarua): 2008ko abenduaren 1etik aurrera. Egun horretatik aurrera administrazio premiamendu bidezko prozedura betearazleari emango zaio hasiera, halaxe xedatzen baitu indarrean den Dirubilketarako Araudi Orokorrak.

## II.- Ordaintzeko modua eta tokia

A. Banketxeetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ere ordainketa banku bidez egin dutenek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko, baldin eta banku helbideraketako kontua oraindik ere indarrean badute. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

Helbideratutako ordainagiriak ondoko egunotan kobratuko dira:

- 2008ko urriaren 6an, Hiri Ondasun Higiezin gaineko Zerga.

- 2008ko azaroaren 6an, Landa Ondasun Higiezin gaineko Zerga.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez dutenek araututako epean ordaindu beharko dute Vital Kutxak, Euskadiko Kutxak, Caja Rural de Navarra eta Santander Central Hispanok Santikurutze Kanpezun dituzten bulegoetan.

## III.- Gomendioak

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Kanpezuko Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezu, 2008ko abuztuaren 29a.- Alkate-lehendakaria, AITOR AGUINAGA LEGORBURU.

## IRUÑA OKA

5725

**Herritarrak laneratzeko Iruña Oka programaren baitan langileak kontratatzeagatiko pizgarriak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak arautzen dituen udal ordenantza behin betiko onartzea.**

Herritarrak laneratzeko Iruña Oka programaren baitan langileak kontratatzeagatiko pizgarriak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak arautzen dituen udal ordenantzaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Halaber, testu osoa argitaratzen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoak betetze aldera.

**HERRITARRAK LANERATZEKO IRUÑA OKA PROGRAMAREN BAITAN  
LANGILEAK KONTRATATZEAGATIKO PIZGARRIAK JASO AHAL  
IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK ARAUTZEN  
DITUEN UDAL ORDENANTZA**

## 1. artikulua.- Helburua

Ordenantza honek Herritarrak laneratzeko Iruña Oka programaren baitan langileak kontratatzeagatiko pizgarriak jaso ahal izateko pertsonak eta enpresek bete beharreko baldintzak arautzea du helburua.

## 2. artikulua.- Onuradunak

Ondokoek jaso ditzakete langileak kontratatzeagatiko pizgarriak: Iruña Okako udalerrian egoitza izan eta lan egiten duten pertsonak eta enpresek edo horien mendeko ordezkariak eta erakundeak.

## 3. artikulua.- Kontraturiko langileak

Pizgarriak jaso ahal izateko, kontratatutako langileek, gutxienez, bi urte eramango dituzte Iruña Okan errolatuta.

- 1.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Urbana.
- 2.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Rústica.

## I.- Plazo de pago

A.- Periodo voluntario: Del 1 de Octubre de 2008 al 30 de Noviembre de 2008

B.- Periodo ejecutivo con el recargo del 5%: A partir del 1 de Diciembre de 2008, iniciándose procedimiento ejecutivo de apremio administrativo de conformidad con las disposiciones establecidas en el vigente Reglamento General de Recaudación.

## II.- Lugar y forma de pago

A. Pagos domiciliados en entidades bancarias: Los que tuvieran domiciliado el pago en años anteriores, no tendrán que hacer ninguna gestión si mantienen la cuenta de domiciliación bancaria. El Ayuntamiento se encargará de tramitar el pago.

El cobro de los recibos domiciliados se efectuará en las siguiente fechas:

- El día 6 de Octubre de 2008 los recibos correspondientes al IBI URBANA.

- El día 6 de Noviembre de 2008 los recibos correspondientes al IBI RÚSTICA.

B. Pagos no domiciliados: Los que no tuvieran domiciliado bancariamente el pago, únicamente podrán efectuarlo durante el periodo voluntario en las Sucursales que las Cajas Vital Kutxa, Laboral Popular, Caja Rural de Navarra y Santander Central Hispano tienen en Santa Cruz de Campezo, en horario de oficina.

## III.- Recomendaciones

Las altas o modificaciones bancarias, así como los cambios de domicilio a efectos de sucesivas notificaciones, deberán tramitarse en el Ayuntamiento de Campezo.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Santa Cruz de Campezo, a 29 de Agosto de 2008.- El Alcalde-Presidente, AITOR AGUINAGA LEGORBURU.

## IRUÑA DE OCA

5725

**Aprobación definitiva Ordenanza Municipal Reguladora de las Condiciones para acceder a incentivos por la contratación de personal del denominado Programa de Iruña de Oca por el empleo de sus ciudadanos.**

No habiéndose presentado reclamaciones contra la aprobación inicial de la Ordenanza Municipal Reguladora de las Condiciones para acceder a incentivos por la contratación de personal del denominado Programa de Iruña de Oca por el empleo de sus ciudadanos, la misma queda aprobada definitivamente, publicándose a continuación el texto íntegro de la Ordenanza, a los efectos previstos en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de Abril Reguladora de las Bases de Régimen Local:

**ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LAS CONDICIONES PARA  
ACCEDER A INCENTIVOS POR LA CONTRATACIÓN DE PERSONAL  
DEL DENOMINADO PROGRAMA IRUÑA DE OCA POR EL  
EMPLEO DE SUS CIUDADANOS**

## Artículo 1.- Objeto.-

La presente Ordenanza tiene por objeto establecer las condiciones y requisitos que deben cumplir aquellas personas o empresas que pretendan acceder a los incentivos por contratación de personal dentro del programa denominado Iruña de Oca por el empleo de sus ciudadanos.

## Artículo 2.- Destinatarios.-

Podrán acceder a los incentivos por contratación, las personas, empresas o sucursales de las mismas y organismos que radiquen y ejerzan su actividad dentro del término municipal de Iruña de Oca.

## Artículo 3.- Personal Contratado.-

Para tener derecho a los incentivos, el personal contratado deberá estar empadronado en el Municipio de Iruña de Oca con dos años de antigüedad.

## 4. artikulua.- Kontratu motak

Lan araubidean xedatutako kontratuak emango dute pizgarriak jasotzeko eskubidea, etorkizunean haietan gerta daitezkeen aldaketak gorabehera.

## 5. artikulua.- Baldintza orokorrak

Hona hemen, pizgarriak jaso ahal izateko, pertsonak, enpresek eta erakundeek bete beharreko baldintzak:

a) Herri Administrazioen Kontratuen maiatzaren 18ko 13/1995 Legeak (1995eko maiatzaren 19ko EAO, 119 zk.) 20. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuren baten mende ez egotea.

b) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga dela-eta, alta emana izatea.

c) Iruña Okako Udalarekin zerga edo bestelako zorrik ez izatea.

## 6. artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoa

1.500 euro edo udalaren aurrekontuaren arabera dagokiona, baldin eta langabetuari egiten zaion kontratua mugagabea bada.

## 7. artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoa

Pizgarriak urte amaieran ordainduko dira. Eskaerak aztertuta, eman beharreko dirulaguntzek guztira aurrekontuan jasotako zenbatekoa baino gehiago egingo balute, dirulaguntzen murrizketa hainbanatu egingo litzateke.

## 8. artikulua.- Kontratua ez betetzea

Lan epaitegiak, sententzia bidez, langileak lanetik botatzea erabakitzen duen kasuetan, honela jokatu da:

.- Bidezko lanetik-botatze kasuetan: enpresaburuak pizgarrien erdia jasotzeko eskubidea izango du.

.- Bidegabeko lanetik-botatze kasuetan: enpresaburuak pizgarriak itzuliko ditu eta ez du beste ezer kobratuko. Hala egin ezean, legez araututako kobratze eta betearazte prozedurei ekingo zaie, barne premiamendu bidea.

Lanetik botatzea ez den kasuren batengatik edo bi aldeen artean hala adostu ondoren, kontratua bertan behera uzten den kasuetan, pizgarria emateko denbora kontuan hartuta, denbora horretan egindako egunen batez bestekoa hartuko da kontuan.

## 9. Artikulua.- Prozedura

Pizgarri eskabidea Iruña Okako Udal Idazkaritzan aurkeztuko da, ondoren aipatzen diren agiriekin batera:

.- Ordenantza honetako 2., 3. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak bete direla adierazten duen ziurtagiria.

.- Lan kontratuak, Gizarte Segurantzako alta edo baja agiriak eta, lanetik botatuko kasuetan, lan arloko aginpidedunaren ebazpenak edo epai irmoak.

Eskabidea aurkeztu ondoren, eskabideak baldintza guztiak betetzen dituen egiaztatuko da, eta, horren arabera, udalbatzak onartu edo atzera botako ditu egiten duen lehenengo osoko bilkuran.

Eskaera onartu ezean, ezetza arrazoitua izango da eta zer baldintza edo betekizun bete ez den adieraziko.

## 10. artikulua.- Ordenantzaren indarraldia

Ordenantza honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Iruña Oka, bi mila eta zortziko abuztuaren hogeita seia.- Alkatelehendakaria, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ jauna.

IRUÑA OKA

5737

## Errekerimendua jakinaraztea

Udal honetan dauden datuen arabera, udala Fernando Pozo Corcuera jaunari ondokoa berariaz jakinarazten saiatu da, helbide honetan, baina ez du lortu: Alkatearen 295/08 Ebazpena Vitoria-

## Artículo 4.- Tipos De Contratos.-

Los contratos de trabajo que darán derecho a los incentivos, serán los establecidos en la legislación laboral en sus distintas modalidades, con independencia de las reformas y modificaciones que se puedan producir en los mismos.

## Artículo 5.- Condiciones Generales.-

Los particulares, empresas u organismos que pretendan acceder a los incentivos:

a) No deberán estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar establecidas en el artículo 20 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas de 18 de mayo de 1995. (BOE nº 119 de 19 de Mayo de 1995)

b) Deberán estar dados de alta, a nivel municipal, en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

c) Y, especialmente, estarán al corriente de sus obligaciones fiscales y de cualquier otro tipo con el Ayuntamiento de Iruña de Oca.

## Artículo 6.- Cuantía De Los Incentivos.-

La cuantía de los incentivos se establece en la cantidad de 1.500 euros, (o la cantidad proporcional que corresponda en función del presupuesto municipal) siempre que el contrato efectuado con el trabajador desempleado tenga carácter indefinido.

## Artículo 7.- Abono De Los Incentivos.-

El abono de los incentivos se realizará al final de cada ejercicio anual, y en el caso, de que una vez examinadas las solicitudes presentadas, la cantidad a subvencionar fuese superior a la presupuestada, se hará una disminución proporcional a las ayudas concedidas.

## Artículo 8.- Incumplimiento De Los Contratos.-

En los supuestos de despido, declarados por la autoridad laboral competente o por sentencia firme, se procederá de la siguiente forma:

.- Despido procedente: el empresario tendrá derecho al cobro de la mitad de la cantidad fijada como incentivo.

.- Despido improcedente: el empresario deberá proceder a la devolución de las cantidades percibidas, sin derecho a ningún otro cobro, y en caso contrario se utilizarán los procedimientos de cobro y medios de ejecución legalmente establecidos, incluida la vía de apremio.

En los supuestos de cesación del contrato bien por mutuo acuerdo, bien por cualquier otra circunstancia distinta del despido, se procederá a efectuar un prorrateo respecto del tiempo de trabajo en relación con el que sirvió de base para la concesión del incentivo.

## Artículo 9.- Procedimiento.-

La solicitud de incentivos, deberá presentarse en la Secretaría del Ayuntamiento de Iruña de Oca, acompañando la siguiente documentación:

.- Justificación de cumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en el artículo 2, 3 y 5 de la presente Ordenanza.

.- Contratos de trabajo, partes de alta en la Seguridad Social o, en su caso, partes de baja, resoluciones de la autoridad laboral o sentencia firme en los supuestos de despido.

Presentada la solicitud, se efectuará el estudio del cumplimiento de todos los requisitos y condiciones y será aprobada o denegada en el siguiente Pleno que celebre el Ayuntamiento.

En el supuesto de denegarse la solicitud, la misma será motivada indicando qué requisitos o condiciones no se cumplen.

## Artículo 10.- Vigencia de la presente ordenanza.-

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

En Iruña de Oca, a veintiséis de agosto de dos mil ocho.- El Alcalde-Presidente D. JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ.

IRUÑA DE OCA

5737

## Notificación Requerimiento

Intentada, sin efecto, notificación de forma expresa a D. Fernando Pozo Corcuera, en el domicilio conocido a efectos de notificaciones, según los datos obrantes en este Ayuntamiento, a saber: C/Azucarera